

Uztaritzen, Landagoien etxean, egin du Euskaltzaindiak 1983.eko Urriaren 29-an, bere hileroko batzarrea. Bildu dira: L. Villasante, euskaltzainburua, J. Haritschelhar, buruordea, J. M. Satrustegi, idazkaria, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, F. Ondarra eta J. San Martin, euskaltzainak. J. L. Lizundia, idazkari-ordea.

Maileguzko hitzei buruz bi egun haietan egindako lana aztertu da, eta irakurritako txostenak nahiz batzartuen eztabaidak aintzat harturik, erabaki zehatzago bat Euskaltzaindiak eman aurretik adierazpen hau zabaltzea, aho batez onartu da:

“Euskaltzaindiak maileguzko hitzei buruz bigarren Jardunaldiak egin ditu Uztaritzen. Helburua ez da hitz zerrenda —lexikoa, alegia— onartzea, maileguzko hitz horiek zein grafiatan hartu behar genituzkeen eztabaidatzea baizik. Euskarak, nahi eta ez, kanpotikakoak hartu behar ditu eta ari da hartzen, baina hartu, neurritz hartu behar, hizkuntzak bere muina galduko ez badu.

1959-an Euskaltzaindiak euskal hitzak zein diren mugatzeko eman erabakian, maileguzko hitz zaharrei buruz lehen-lehen urratsa eman zuen. Euskararen lege fonetiko historikoak gorde behar dira, baina maileguzko erdaretan duten itxurari leialtasuna zor zaie, begiz ere sartzen bait dira hitzak. Hortik sortzen zaio Euskaltzaindiari bat-batean eta erabat konpontzeko zaila ikusten duen auzi korapilatsua, eta premia.

Bi lege horiei ahalik eta zehatzen erantzutea da Euskaltzaindiaren eginbidea. Zenbait aldiz, hitz mailegatuek inguru hizkuntzetan duten itxura aldatu behar dute gureganatzean, eta euskararen zenbait lege zaharrek amore eman beharko dute, beste askotan.

Bi Jardunaldi horietara ekarri diren txosten baliotsuak oinarri harturik, aski lan-duak eta omotuak dauden puntuekiko erabakiak, ahalik eta lasterren, banan-banan agertuko ditu Euskaltzaindiak”.

Eskuarteko gaiak

Euskaltzainburuok Gasteizen hil honen 20-an erabilitako gaien berri eman da gero.

J. Haritschelhar jaunak, bere aldetik, Gramatika batzordeak egina duen bilkura aipatu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

